



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

GRADUONDOKOAREN ETA ETENGABEKO IKASKUNTZAKO ERREKTOREORDETTA

VICERRECTORADO DE POSGRADO Y APRENDIZAJE PERMANENTE

UNIBERTSITATE HEDAKUNTZAKO IKASTAROAK **CAMPUS DE VERANO EGOKITU UDAKO CAMPUSA (8. edizioa)**

INFORMAZIO OROKORRA

IKASTURTEA: 2025/26

ARLOA: Ikasketa Teknikoak

KREDITUAK: 2 ECTS kreditu (*)

MATRIKULA TASA: 110 € (asegurua 4€, galdetu)

ARDURADUN AKADEMIKOA: Aitzol Ezeiza Ramos

AURKEZPENA

Unibertsitatea da heziketa-prozesuaren azken urratsa, eta unibertsitate aurreko orientazioak berebiziko garrantzia du etorkizuneko ikasleriak eskaintzen zaizkion aukera hezigarriak eta profesionalak ezagutu eta uler ditzan. Horretarako, ezinbestekoa da hezkuntza-maila ezberdinen partzelazio gehiegizkoa gainditzea eta enpresen benetako beharrei gerturatzea. Ezinbestekoa da ezagutzea egitura ekonomikoaren ezaugarriak eta datozen urteetan enpresek beharrezko izango duten talentoa, bai pertsonen ezagutza teknikoen baita gaitasun eta jarrerren ikuspuntutik ere. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak abian jarritako EGOKITU programak (Euskal Gazteen Orientaziorako Ikastaroa. Talentua Unibertsitatean), prozesu hori hobetzea du helburu, unibertsitate-orientazio egokiago bat lortzearren. Horrela, ikasle bakoitzaren gaitasunari eta talentuari egokitzen zaien heziketa berariazko baten bitartez, profesional hobeagoak trebatu ahal izango ditugu. Horregatik, EGOKITU ikasle gazteen orientazio profesionala hobetzeko sortutako unibertsitate-orientaziorako funtsezko tresna da. EGOKITU 15 eta 17 urte bitarteko gazteei zuzendutako Udako Campuseko eskaintza da, unibertsitate errealitatera eta enpresa mundura modu ludikoan hurbil daitezzen ahalbidetzen duena. Horrela, ikasle gazte horiek modu askoz ere egokiago zein eraginkorragoan ezagutu ahal izango dituzte hurrengo fasean eskura izango duten formakuntza-eskaintza; beti ere, beraiek zuzenez egiazta dezaten euren gaitasunak eta talentua ikasketa jakin batzuekin lerrotatuta dauden. Programa hau abian jartzen da honako helburu hauek erdietsi ahal izateko: - Etorkizuneko unibertsitate-ikasleen orientazio profesionala hobetzea, unibertsitate- eta unibertsitate aurreko heziketaren arteko koordinazioa ahalbidetuko duen mekanismo berritzailea garatuz. - UPV/EHUren formakuntza-eskaintza Gipuzkoako gizartearen beharretara gerturatzea. EGOKITU programak berekin dakar UPV/EHUko Gipuzkoako Campuseko 9 Ikastegietan Udako Formakuntza-Ikastaroak abian jartzen direla. Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzak koordinatutako eta kudeatuko du aipatutako programa.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

GRADUONDOKOAREN ETA ETENGABEKO IKASKUNTZAKO ERREKTOREORDETZA

VICERRECTORADO DE POSGRADO Y APRENDIZAJE PERMANENTE

ZURE BILA GABILTZA

Nori zuzendua: Unibertsitate eta lanbide-mundura modu ludikoan hurbildu nahi diren DBHko 3. maila gainditu duten gazteei (17 urtekoak gehienez).

BALDINTZAK

2009 eta 2011 urteen artean jaio eta DBHn edo Batxillergo ikasketak egiten ibili.

IRAKASKUNTZA

HASIERA ETA AMAIERA DATA: 2026/06/29 – 2026/07/10

EMATEKO TOKIA: Hainbat ikastetxetan

HIZKUNTZA: Euskera eta gaztelania

INFORMAZIOA/ IZEN-EMATEA

SAIL EDO ORGANO ARDURADUNA: Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetza

HELBIDEA: Julianategi, Arriola pasealekua 2. Donostia 20018

TELEFONOA: 943 01 8323

POSTA ELEKTRONIKOA: aitzol.ezeiza@ehu.eus

(*) ECTS kreditu batek 25 orduko balioa du.